

## 4. ERANSKINA

# AUTOEBALUAZIO-FORMULARIOA, EAEKO NATURA 2000 SAREKO KUDEAKETA-PLANEK KLIMA- ALDAKETA NOLA INTEGRATZEN DUTEN AZTERTZEKO



### EAEko NATURA 2000 SAREAREN KUDEAKETA-PLANAK KLIMA-ALDAKETAREN IKUSPEGITIK EGOKITZEKO ANALISIA

#### AUTOEBALUAZIO-FORMULARIOA

<b>GUNE BABESTUA</b>	
<b>LEGEZKO BABES-FIGURA</b>	
<b>ADMINISTRAZIO ESKUDUNA</b>	
<b>PLAN-MOTA</b>	Indarrean. Onespen-data: Berria
<b>DOKUMENTUAREN EGOERA</b>	Zirriborro teknikoa Parte-hartze fasea Informazio publikoa Argitaratzeko zain Argitaratua. Onespen-data:

## I. FASEA. PRESTAERAKOA: KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO DIAGNOSTIKO OROKORRA BIBLIOGRAFIAN OINARRITUTA

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<b>I.1. Lege-esparrua</b>		
<b>1</b>		Klima-aldaketaren lege-esparru espezifikoa kontsultatu da nazio-mailan, bai eta eskualdeko plan edo estrategiak edo tokiko ekintza-planak ere.
<b>2</b>		Sinergia edo kontraesan posibleak identifikatu dira klima-aldaketaren arloko balizko plan edo jarduketekin.
<b>3</b>		Sinergia edo kontraesan posibleak identifikatu dira klima-aldaketari lotuta ez dauden plangintza sektorialeko beste tresna batzuekin (basogintza, ura, kostaldea, lurzorua, etab.).
<b>I.2. Dokumentu-iturriak</b>		
<b>4</b>		Klima-aldaketari buruzko oinarrizko dokumentu-iturriak kontsultatu dira, gutxienez nazio-mailan.
<b>5</b>		Lan-eskalan garrantzizkoa den informazio zientifikoa eta teknikoa kontsultatu da.
<b>6</b>		Adituei kontsulta egin zaie klima-aldaketaren tokiko efektuei buruz.
<b>7</b>		Espresuki identifikatu dira klima-aldaketaren ebidentziari edo haren efektuei buruz dauden informazio-gabeziak.
<b>8</b>		Natura 2000 guneko giza jarduera garrantzitsuenak identifikatu dira.
<b>I.3. Arintze-diagnostikoa: Xurgapenen eta isurketen analisia</b>		
<b>9</b>		Gune babestuan edo antzeko guneetan dagoen karbono-gordailuari buruzko datuak identifikatu dira.
<b>I.4. Egokitze-diagnostikoa: Klima-karakterizazioa eta klima-aldaketaren ebidentziak</b>		
<b>10</b>		Egungo eta etorkizuneko klima deskribatu da, eskualde-mailan karakterizatzen duten funtsezko aldagaiak kontuan hartuta.
<b>11</b>		Egungo eta etorkizuneko klima deskribatu da ikuspegi bioklimatiko batetik (klima-aldagaien eta ekosistema- edo landaredi-moten banaketaren arteko harremana) eta espero diren aldaketa bioklimatikoak klima-aldaketaren agertokietatik abiatuta.
<b>12</b>		Klima-aldaketaren egungo eta etorkizuneko ebidentziak eman dira Natura 2000 gunean eta/edo haren inguruetan, kasuaren arabera.

**OHARRA: Klima-aldaketa ez bada aldaketa-faktore garrantzitsu bat, prozesua bertan behera utziko da hemen. Horretarako, garrantzi hori justifikatu beharko da I. Fasean ebaluatutako 1etik 12ra bitarteko irizpideen arabera.**

## II. FASEA. KLIMA-DIAGNOSTIKO ESPEZIFIKOA

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<b>II.1. Arintze-diagnostikoa</b>		
<b>13</b> Natura 2000 gunean dagoen karbono-gordailua kuantifikatu da.		
<b>14</b> Natura 2000 guneko karbonoaren urteko igoera eta galerak kuantifikatu dira.		
<b>II.2. Funtsezko-elementuen klima-arriskuaren analisia</b>		
<b>II.2.1. Mehatxuak</b>		
<b>15</b> Natura 2000 guneari eragin diezaioketen mehatxuak zehaztu dira.		
<b>16</b> Inpaktu-kateak identifikatu dira inpaktuen eta <b>15. Irizpidean</b> hautatutako Funtsezko-elementuen arteko erlazioa ebaluatzeko.		
<b>II.2.2. Klima-arriskua</b>		
<b>II.2.2.1. Esposizioa</b>		
<b>17</b> Klima-aldaketa esplizituki identifikatu da Natura 2000 gunerako aldaketa-faktore garrantzitsu gisa.		
<b>II.2.2.2. Kalteberatasuna</b>		
<b>II.2.2.2.1. Sentikortasuna</b>		
<b>18</b> Sentikortasunari lotutako “proxy” adierazleak edo aldagaiak identifikatu dira.		
<b>19</b> Sentikortasunerako alde aurretik identifikatutako “proxy” adierazleak edo aldagaiak kuantifikatu dira.		
<b>20</b> Sentikortasunerako “proxy” adierazle edo aldagai bakoitzerako pisu espezifikoak definitu dira.		
<b>II.2.2.2.2. Egokitzeko gaitasuna</b>		
<b>21</b> Egokitzeko-gaitasunari lotutako “proxy” adierazleak edo aldagaiak identifikatu dira.		
<b>22</b> Egokitzeko gaitasunerako alde aurretik identifikatutako “proxy” adierazleak edo aldagaiak kuantifikatu dira.		
<b>23</b> Egokitzeko-gaitasunerako “proxy” adierazle edo aldagai bakoitzerako pisu espezifikoak definitu dira.		

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<b>II.2.2.2.3. Kalteberatasunaren kalkulua</b>		
<b>24</b> Sentikortasunerako eta egokitzeko-gaitasunerako pisu espezifikoak definitu dira.		
<b>25</b> Natura 2000 gunearen kalteberatasuna kuantifikatu da.		
<b>II.2.2.3. Klima-arriskua</b>		
<b>26</b> Gunearen klima-arriskua kalkulatu da (Funtsezko-elementuak, prozesuak, zerbitzuak eta giza jarduerak, kasuaren arabera) eta emaitzak interpretatu dira.		

### III. FASEA. PLANGINTZA INDARREAN DAGOEN KUDEAKETA-PLAN BAT KLIMA-IKUSPEGIRA EGOKITZEA

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<b>III.1. Indarrean dagoen Kudeaketa Planaren diagnostikoaren analisia</b>		
<b>27</b> BEGen xurgapen-ahalmena eta balizko isurketak kontuan hartu dira Funtsezko-elementuei lehenetasuna emateko irizpide gisa.		
<b>28</b> Klima-arriskua kontuan hartu da jardun beharreko Funtsezko-elementuak lehenesteko irizpide gisa.		
<b>29</b> 27. eta 28. Irizpideetan lehenetsitako Funtsezko-elementuetatik abiatuta, balorazio zehatzagoa egin da, kontserbazio-egoera eta etorkizuneko klima-proiekzioen aurrean izan daitekeen eboluzioa kontuan hartzen dituen.		
<b>30</b> Kontuan hartu da Natura 2000 guneak Funtsezko-elementuen kontserbazio globalerako klima-aldaketaren testuinguruan duen garrantzi erlatiboa (eskualde biogeografikoa, estatukoa, eskualdekoa, etab.).		
<b>III.2. Helburu Orokorren eta Espezifikoaren/Operatiboen definizioa</b>		
<b>31</b> Klima-aldaketa kontuan hartu da helburuen definizioan, eta helburuen eta klima-aldaketaren arteko harremana argia da.		

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<p><b>32</b> (OHARRA: 30. Irizpidean garrantzia handia bada)</p> <p>Helburuak definitzeko, kontuan hartu da Natura 2000 guneak kontserbazioaren xedeen kontserbazio globalerako klima-aldaketaren testuinguruan duen garrantzi erlatiboa (eskualde biogeografikoa, estatukoa, eskualdekoa, etab.).</p>		
<p><b>III.3. Klima-ekintzarako kudeaketa-ekintzak definitzea</b></p>		
<p><b>33</b> Klima-aldaketa kontuan hartu da erregulazioen edo neurrien definizioan, eta erregulazioen edo neurrien eta klima-aldaketaren arteko harremana argia da.</p>		
<p><b>34</b> Klima-aldaketarekin lotutako kudeaketa-ekintzen eta kontserbazio-helburu edo -ekintza batzuen arteko bateragarritasuna ebaluatu da, kontuan hartuta, besteak beste, egokitzapen-neurri okerrak (edo “maladaptation”) ekiditea.</p>		
<p><b>III.4. Parte-hartzea</b></p>		
<p><b>35</b> Klima-aldaketaren alderdiak parte-hartze prozesuetan txertatu dira.</p>		
<p><b>36</b> Parte hartzeko edo jendaurreko informaziorako prozesuan, autonomia-erkidegoko administrazioan klima-aldaketaren arloan eskumena duen erakundea sartu da.</p>		

## IV. FASEA. KLIMA-IKUSPEGIA DUEN KUDEAKETA-PLANA EZARTZEKO FASEA, MOLDATZE-KUDEAKETAREN IKUSPEGIA ERABILIZ

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<p><b>IV.1. Jarraipena eta ebaluazioa</b></p>		
<p><b>37</b> Klima-aldaketaren jarraipen-adierazleak aurreikusi dira.</p>		
<p><b>38</b> Natura 2000 gunearen Kudeaketa Planaren klima-aldaketaren arloko kudeaketa-ekintzen emaitzak ebaluatzeko adierazleak aurreikusi dira.</p>		
<p><b>IV.2. Gobernantza</b></p>		
<p><b>39</b> Aurreikusi da klima-ikuspegia duten kudeaketa-ekintzak sektore arteko lankidetzan-erakundeetan txertatzea.</p>		

IRIZPIDEA	BAI/EZ	OHARRAK
<p><b>40</b> Klima-aldaketarekin zerikusia duten kudeaketa-ekintzetan lagun dezaketen tokiko eragileak identifikatu dira.</p>		
<p><b>41</b> Gobernantza-mekanismo espezifikoak aurreikusi dira klima-aldaketari dagokionez (batzordeak, foroak, etab.).</p>		
<p><b>IV.3. Komunikazioa</b></p>		
<p><b>42</b> Klima-aldaketak Natura 2000 gunean eta bertako komunikazio-ekintzetan edo -materialetan dituen efektuen garrantziari buruzko edukiak aurreikusi dira.</p>		
<p><b>43</b> Natura 2000 guneak karbono-hustuleku gisa duen garrantziari buruzko edukiak aurreikusi dira Natura 2000 guneko komunikazio-ekintzetan edo -materialetan.</p>		
<p><b>44</b> Komunikazio-neurriak aurreikusi dira aurreikusitako klima-ikuspegia duten kudeaketa-ekintzei buruz.</p>		